

*EUSKAL BIBLIOGRAFIA OHARRAK. («EL MENSAJERO)
DEL ESCAPULARIO DEL CARMEN»: EIBARREN, 1946)*

Hondamendizko hutsune larria ezagutu genuen Euskal Bibliografian, Bidasoaz hemengoaldean, 1936-1939.gerra ostean. Garai hartan zer gertatzen zen hemen, denok dakigu. Saiatu dira garai hau arakatzten Euskal Literaturaren aztertzaileak.

Labur edo luze denak hedatu dira panorama inguru honen berri ematen. Goreneko zuzengabekeria ezagutu zuen urte haietan euskarak.

Gerra ostean euskararen lehenengo haztaruak Euskal Bibliografian zuzenki zehazteko oharrak ematen ari naiz BAP Herri Lagunen Aldizkari honen azkenengo zenbakietan.

Ahalik lerro sorta osotuena ematea nahi nuke. Noiznahi eta esker onez hartuko nituzke zuzenketa, gehigarri eta iradokizun lagungarriak. Aldizkari hau berau ere zabalik dugu denontzat, egiazko berrien ekarpenentzako. Beste batzuren ohar-lanak ere pozik ikusiko nituzke, eta moduen batean ekipo antzera egingo genuke lan hau.

«*El Mensajero del Escapulario del Carmen*» Aldizkari orriari buruz doa gaurko ohar hau. Azpтитuloa: «Hoja de Propaganda Religiosa». Aita Liño Akesolok erakutsi dit zenbakien bilduma osoa, Begoñako Karmeldarren Euskal Liburutegian.

Eibarko Karmeldarrak angitaratu zuten aldizkari-orri hau. Donostiako Arrietaren moldiztegian inprimatua.

1945.urtekoa da lehenengo zenbakia. Ez dauka euskarazko idazkirik urte honetan. 1946.urteko Uztailean agertzen da «Euskal Atala». Egilea: «*Karmel-Mendi*» (Aita Doroteoren izenordea?). Aldizkariaren zuzendaria

izan zen Aita Doroteo Aretxabaletakoa, eta Eibarko Karmeldarren Komentuko Nagusia.

1946-1947.urteetan eman zuen euskarazko atala. Udaberrian amaitzen da. Gelditzeko egindua eman zioten; euskarazko atala zokoratzeko!

Gaztelera hutsean jarraitu zuen gero. 1948.urtekoa da azkenengo zenbakia, Bilboko Odorikaren moldiztegian.

M. B. Alzolaka.

1978. VIII.